

**BERGARAKO UDALA**  
**ADMINISTRARIEN LAN POLTSA**  
**BIGARREN ARIKETARAKO DEIALDIA**

Oposizioaldiko bigarren ariketak ondorengo hau dio:

2. Bigarren ariketa: Azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala, nahitaezkoa izangai guztientzat eta baztertzaila (40 puntu).

*Aurreko lehenengo ariketa gainditu duten izangaiei azterketa psikoteknikoa eta/edo elkarrizketa pertsonala egingo zaie, hautagaien egokitze-maila baloratzeko bete behar den lanpostuaren giza eta teknika alorreko ezaugarriekiko.*

*Ariketa honi gehienez 40 puntu emango zaizkio eta egingo diren atal bien puntuazioaren erdia atera beharko da gainditzeko eta gutxienez 25 puntu atera beharko dira guztira ariketa gainditzeko.*

Epaimahaiak honako hauek erabaki ditu:

1.- 2. ariketa hau derrigorrezkoak izango diren proba hauek osatuko dute:

- **1. ATALA:** gaitasun probak (20 puntu)
  1. proba: 12 puntu.
  2. proba: 8 puntu.
- **2. ATALA:** nortasun probak (20 puntu).
  1. proba: 10 puntu.
  2. proba: 10 puntu.

Ez da elkarrizketarik egingo.

2.- Ariketa honen helburua lanpostuarekiko egokitasun maila neurtzea da.

Derrigorrezkoa eta baztertzaila da, eta gehieneko puntuazioa 40 puntu izango dira. 25 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko eta atal bakoitzean puntuazioaren erdia ere lortu beharko da.

Iraupena: **3 ordu** gutxi gorabehera (argibideak eta probak egitea barne).

3.- Probei dagokienean:

1.- Noiz izango da: otsailaren 22an goizeko 10:00etan egingo da.

2.- Non: UNEDen egoitzan (San Martin plaza).

3.- Ekarri beharrekoak: NANA izango dute eskura eta boligrafoa beltza edo urdina eta arkatza eta borragoma bakoitzak berea ekarriko ditu.

4.- Musukoarekin egon beharko da probak irauten duten denbora guztian.

Bergaran, 2022ko otsailaren 18an

Epaimahairen idazkariak

